



Oihanaren balioa

12

Azalpenak eta oharrak

Oihanak garrantzia handia du jendeen bizian. Egurra sugai bezala, zura aldiz etxegintzan (zurgintzan eta zurtatean), lurzorua babesteko eta atsedenaldeen antolatzeke egiten diren oihan antolaketetatik iraganez, klimen erregulatzailearaino, zinez eragin anitz du oihanak gure ingurunean.

Hori dela eta, jendartean, anitz eztabaida, istilu eta tirabira sortu da historian zehar oihana zelarik gaia.

Gure bizi-beharretan oihanak duen funtzioari, haurrak ohartarazi behar dira. Sekuentzia honi esker horretarako bideak asma ditzakegu.

Nondik has

Zura ala egurra mundu guztian baliatua den ekaia da. Zuraren eta egurraren baliabideei eta hauei lotuak diren ofizio edo lanbideei interesa gintezke.

Haurrengandik entzun daitezkeen galderak

Erran ohi da oihana Lurraren hauskoa edo arnasa dela. Zer erran nahi du erranaldi honek ?

Ikaztegiak eta gisulabeak : beihalako jardueren aztarnak nonahi badira Euskal Herrian. Zer egiten zen gunen horietan ?

Pagoaren edo haritzaren zura zeren egiteko baliatzen da ? Zurtate lanetan zein dira baliatzen diren zurak ?

Jarduera batzuk

Oihanaren baliabideez dokumentu bilketa antolatu (erregai, paper, altzari, zurtate, itsatsiki edo lekada...).

Historia arloa : Euskal Herriaren historiari behatuz, XIX. mendean tirabira anitz izan da baserriko euskal jendartean oihanaz (Amikuze, Baigorri, Ortzaize...). Oihaneko mozkinen balia-moldeak historian zehar langai izan daitezke (zura itsasgintzako, sugaia, ikaztegiak, meategiak...).

Zurari eta egurrari lotuak diren lehengo eta oraingo ofizioak edo lanbideak.

Lekuko ekonomian zura edo egurrak daukan tokia neurtu (herrian, kantonamenduan,...).

Lehengo eta oraingo zurez egindako tresnak (ikus zer zur motak erabiliak ziren eta diren).

Ariketak eta ezagutza kokapenak

Bildumak eta laburpenak eskemez, argazkiez eta horma-irudiez horniturik.

Ikasle bakoitzak bere kaieran ikasi dituenak idatz.

**12/1****12/2****12/3****12/4****12/5****12/6**

ikaslearen fitxak

Jakintasunak

Inguruko paisaia aurki daitezkeen lehengo aztarnak bilatu.

Euskarri dokumental ezberdinak baliatu (mapak, planoak, argazkiak...).

Eskema erranguratsuak marraztu.

Dokumentazio bilketa batetik ondorioztatu.



© MIFEN/De Joanho

Beharrezkoa da oihana

Betidanik jendeen baitan oihana baitezpadakoa izan da. Duela 35000 urte, Cro-Magnonen garaian, oihana fruitu eta landareen biltzeko, bai eta animalien ehizatzekeo baliatzen zuten. Jendearen eragina mugatua zen.

Neolitikoan, jendeak bizi eta lan lekua finkatzen du. Laborantza garatzen da eta lehen labaki handiak egiten dira oihanen kaltetan.

Erdi Aroan, jendetza azkarki hazten da eta ehiza-teknikak hobetzen. Ondorioz, jendea oraino gehiago jabetzen da oihanaz. Zuhaztiak emeki-emeki moztzen dira laborantzari eta biziguneei tokia egiteko.

Jendearen eragina oraindik handituz joanen da industria sortzen eta garatzen hasten denean (meategiak, itsasontzigintza...). Baserrietako jende xumeak oihan mozkinaren beharra du bizitzeko. Oihanen jabeak, berriz, ekoizpenari eta ehizari gehiago interesatzen zaizkie. XIX. menderaino egurra eta zura eskastuko dira, bazter guztietan tirabira handiak sortuz.

Frantzia, XVII. eta XVIII. mendean, itsasontzigintzari zura hornitzeko, eskualde anitzetan haritzak eta izeiak hobetsi dira. XIX. mende erdian, itsas-pinudi zabalak landatu ziren Landetan, erretxinaren egiteko. XIX. mende erditsuraino, izei gorriari lehentasuna emaiten diote, laster hazten delako eta eraikuntzan baliatzen baita. Egun daukagun oihan paisaia gure arbasoek egin hautuen ondorioa baizik ez da.

XIX. mendetik goiti, oihana ez da hainbestearaino gutizien eta konfliktoen esku, baserrietako jendetza tipituz doalako eta erregaitzat baliatua zen egurra, harri-ikatzak gero eta gehiago ordezkatu duelako. Europako herrietan, oihanaren babesteko lehen legeen sortzen hasten dira.

XX. mendeko erditik aitzina, oihanaren eremua hedatuz doa eta oihanaren funtzioak ere aldatuko dira. Elur-jauzi eta ezpona lerraldietatik begiratzeko, zuhaitzen landatzea beharrezkoa da. Azken hogeita hamar urte hauetan, oihana zuraren ekoizteko baliatzen da, bai eta atsedenleku gisa, gero eta gehiago. Gaur egun oraino, eztabaidak eta istiluak sortzen dira ehiztarien, ibiltarien, jabeen, laborarien eta oihan-industrialarien artean.

Europako oihan eremuak handitzen ari dira baina alderantziz gertatzen da "garapen-bidean" dauden herrietan. Hauetan jendea labakitzen ari da, energia beharrei erantzuteko, bai eta laborantzako lurren emendatzeko. Oihan tropikalak dira gehienik lanjerean baina zoritxarrez, Ipar Amerikako oihan borealeak ere tipitzen ari dira.

Oihanaren funtzioak

1 Animalien babeslekua

Munduko oihanetan bizi dira planetako espezieen kopuruaren erdia.

Desoihantzearen ondorioz, animalia eta landare mota anitz desagertzen da. Desoihantzea, hain zuzen, haien desagertzearen lehen zergatia bilakatu da. Pentsa, oren bakoitz, espezie bat suntsitzen da, gainera medikuntzako zeuzkaten ahalak guk baliatu gabe ere ! Hori dela eta, lehenbiziko oihanetako espezieen inbentarioa amaitu gabe gelditu da.

Desagertzera doazen oihaneko animalia handietarik

Zimino handiak : orangutana, giboia, gorila...

Tigrea

Sumatrako errinozeroa

Pantera

Eta beste...

© MIFEN/De Joanthe



Orangutan bat oihan tropikalean

Hartz arrea

Ugaztun handi bat, **hartz arrea**, Frantzian, eta bereziki Pirinioetan, desagertzeko zorian dago. Duela 4000 urte, Frantzia guztian bazen. Baina ehizatua izan da ardietan desmasiak egiten zituelako eta haren larruak arrakasta zuelako. Hori dela eta, hartzak Pirinioetako oihanetan aurkitu zuen bere azken gordelekua. Baina oihanaren ustiapenak eta bizi zen ibarretan egin diren antolaketek ez diote gerizalekurik emaiten. Sei hartz baizik ez dira gelditzen, haietarik bat emea, hartzaren kopurua 150 eta 200 artean zitekeelarik 1937an. Gaur egun, hartz arrea desagertzera doa.

2 Lurzorua higaduratik babesten dute

Zuhaitzen erroak lurrean hedatzen direnean, lurra trinkoki atxikitzen dute eta euri anitz egiten duelarik, ur soberakina xurgatzen du belaki baten gisan.

Oihanak, bizi egoitzak, bideak, laborarien lurrak eta gunee turistikoak, elur-jauzietatik, lerraldietatik, uholdeetatik eta haizeetatik begiratzen ditu.

Oihanak hareamunoak (Landetako oihana) eta herbehereak finkatzen edo atxikitzen ditu erroei esker.

3 Uraren, airearen, lurzorua eta harrabotsa kutsaduratik begirutzen

Oihanak ura iragazten du eta lurzorua izan daitezkeen kutsaduretatik garbitzen.

Oihanak airean dauden gasak eta errautsak iragazten ditu. Beraz airearen kutsaduratik hein batean bederen begirutzen gaitu. Gainera, bide eta hiri azantzak (autobide, burdinbide, lantegi, hiri...) eztatzen ditu.



© MIFEN/De Joantho

4 Klimaren erregulatzaile

Uraren zikloan daraman erregulatzaile lana baitezpadakoa da.

Oihanak ur-erreserbak egiten ditu euriteetan eta ur hori ingurune naturalari ordaintzen dio idortean. Euri-ura banatzen du emeki urtean zehar eta guztien buruan, klima erregulatzen du.

Beraz zuhaitzak izerditzen dira eta izerdi-ura lurruntzean, euri bilakatzen da airearen kontaktuan.

Amazonian eta Kongon, eurialdi gehienak zuhaitzen izerditzeari esker izaten dira.

5 Munduari arnas emaila

Hostoetatik eta enborretatik errautsak bilduz, oihanak airea iragazten du. Era berean, fotosintesia egitean, atmosferan den

gas karbonikoa irensten du eta beharrezkoa zaigun oxigenoa kanporatzen.

6 Gure beharrentzat, egurra, hostoak eta erretxina

Oihanak egun guztietan baliatzen dugun zura hornitzen digu : altzariak, papera, musika tresnak, eraikuntzak, laneko tresnak...

Bizkitartean, etxegintzan burdinkia, plastikoa eta betona baliatzen dira gero eta gehiago zuraren orde.

Oihan tropikaletatik datoz ere olioak, gerleak, erretxina, iebeatik datorren kautxua, ezkoa, koloratzaileak, mundrunak...

Hurbilago egonez, Landetako itsas-izeiaren erretxina, ezko-argien eta lekeden (kolen) egiteko baliatzen da. Artelatzaren azaletik egiten dira botila tapagailu edo kortxoak eta berdin tresna giderrak...


Papertegiek (paper egiteko oreka prestatzen duten lantegiek) hondakin anitz egiten dute : produktu kimikoak, zerrazahia, ezpalak, azalak, zur-hondakin... Hauek oro jendeek baliatzen dituzte, animalien ihargaien, taula aglomeratuen edo erregaiei egiteko.

7 Landare jangarrien eta sendabelarren lekua

Munduko oihanek egunero jaten ditugun fruitu eta espezia anitz ematen digute : banana, kafe, kakao,... Gehiago dena, oihan horietan beren baitarik heldu dira gure herrietan lantzen ditugun fruituen antzekoak.

ELHUYAR
192. zenbakia
2003ko azaroa

Sendagailuak egiten dira oihaneko landareetatik.



Oihanetako landare anitz medikuntzan baliatzen dira. Adibidez, sahasa aspirinaren egiteko eta haginaren azala bularreko minbiziaren artatzeko.

Oihan tropikalek sendabelarren erreserba handiak dauzkate. Amerikako minbiziaren institutuak oihan tropikaletako 1400 landare identifikatu eta sailkatu ditu, denak minbiziaren aurka baliagarriak. Bestalde, medikuntzan erabiltzen den substantzietan, bada malaria eritasunaren artatzeko kinina eta halaber, beste batzuk hipertentsio arterialaren artatzeko.

Bizkitartean, gauza handirik ez dakigu oraino oihan tropikaletako landareez eta bereziki dauzkaten sendatzeko ahalaz. Desoihantze prozesuak horrela segitzen badu, jendeen eta animalien artatzeko baliagarriak litekeen sendabelarrak alde bat galduko ditugu.

Bestalde, oihan tropikaletatik heldu zaizkigun elikagaiak eta sendagailuak gutiz gehienak tokian bizi diren jendeek

dizkigute ezagutarazi, berek beren arbasoengandik ukan jakintzari esker. Zoritxarrez, desoihantzea nagusituz bezala, oihaneko populu hauek beren eskubideak, beren kultura, eta beren bizipideak galtzen ari dituzte. Amazonian adibidez, mende batez, 90 tribuz goiti desagertu da eta hauekin batean sendabelarren jakintzatik parte bat betiko galdu.

8 Oihana aisialdi leku

Oihana deskantsu leku bezala ere erabil dezakegu: oinez, bizikletaz, zaldiz, onddoketa ibiliz... edo zergatik ez, loaldi bat eginez zuhaitz baten pean.

Laneko eta eguneroko biziaren pilpirak ahantziz, lasaitzeko parada dukegu zuhaitzen artean.

© MIFEN/De Joantho



Desoihantzearen ondotik...

1 Basamortutzea

Lurzoru meheetan, hala nola oihan tropikaletan, desoihantzearen ondotik, laster lurzorua arrasatzen da. Bizpahiru urtez landaredia guztia desagertzen delako, lurzoruak ez du gehiago hazkuririk; lurra ez da gehiago emankor eta deus ez da gehiago heldu. Orduan, urrunxeago, beste leku bat desoihantzen dute jendeek eta horrela segituz, azkenean, basamortua baizik ez da gelditzen oihan eder eta aberatsaren orde. Hots, desoihantzeak dakarren fenomeno da. Euskal Herriko adibide ezaguna zaigu Nafarroa hegoaldean eta Aragoiko mugetan dagoen Bardeen basamortua (415 km²).

2 Lurzorua higidura

Desoihantzearen ondotik, oihan tropikaletako lurzorua urak eta haizeak daramate. Hala gertatzen da bereziki euri uholdeak jasaten dituzten lurralde tropikaletan. Fenomeno honetatik heldu da lurzorua higidura eta honen ondorioz diren lur lerratzeak eta erreka hareaztatzeak.

Fenomeno hauek bat besteari lotuz geroz, desmasia edo hondamendi handiak egiten dituzte eskualde zenbaitetan.

3 Idortea

Desoihantze handiek klima ere alda dezakete. Zuhaitzak eta landareak izerditzen dira eta ondorioz ura botatzen dute. Ur hori lurruntzen da airearen kontaktuan eta euri bilakatzen. Oihan handiak desagiten direnean, urguneak agortzen dira eta atmosfera ere xukatzen. Ondorioz, uraren zikloa bestelakatzen da eta klima aldatzen.

4 Uholdeak

Oihan lurzoruek pentzeek baino hamar aldiz ur gehiago irensten dute. Oihana kentzen delarik, arrasatua den lurzoruan, ura dario irentsi gabe. Lurra berekin eramanez, ur hori laster heltzen da erreketara eta ibaietara. Ondorioz uholde kaltekorrak izan daitezke lohi isurtze larriekin.

Noiztenkako edo sasoi euriteak dituzten eskualdetan (euri-sasoiak eta sasoi idorrak aldizka), Afrikan gertatzen den bezala, desoihantzeak uholde gotor eta idorte hondatzaileak dakartza.

5 Lekuko jendetza desagertzea

Oihanetik bizi ziren etnia anitz desagertzeko zorian dira beren ingurunearekin batera.




© MIFEN/De Joantho

Frantziako oihanak

Frantziak oihan eremu handiak ditu

Europako komunitatean Frantziak ditu oihan eremu handienak. Akitania Frantziako lurralde oihantsuena da Vosgeak, Alpe eta Var departamenduekin. Landetako oihana Europako oihanalde zabalena da (900 000 hektarea). Frantzian aurkitzen diren zuhaitz espezie arruntenak haritza, itsas-pinua eta pagoa dira.

Frantziako zuhaitz moten banaketa




Zertan baliatzen da zura ?

Frantziako oihanen %70a pribatua da. Gelditzen direnak estatuarenak dira edo lekuko erkidegoenak (herriak, ibar-sindikatuak, kontseilu orokorrak...).

Frantzian zura eraikuntzan da erabiliena, altzarigintzan eta kesen edo kutxen egiteko ; paper, hesola eta sugaitako ere. Gehienetan, enbor larriak moztuak dira, segatuak, taulatuak, paleten, kutxen, zurtateen, altzarien, zoladuren egiteko eta egur xeheak, aldiz, porroskatuak eta zirtzikatuak, paper orearen egiteko.

Egur herrokaren eskema



Zertan baliatzen da zura ?

ZUHAITZA MOTA	BALIOA
Haltza	Zur uxter edo beratza, arkatzen egiteko.
Urkia	Zur gogorra, altzarigintzan.
Zumalakarra	Kanoien bolboraren egiteko.
Xarma	Sugai hauta. Lehen, harakinen mahaien egiteko.
Gaztainondoa	Tanua, larruen apaintzeko.
Haritza	Zur gogorra, altzarien egiteko eta etxegintzan. Artelatza : botila tapoien egiteko. Euskal Herrian haritz batzuk urtero argalduak ziren enborrerraino edo adaburutuak. Horrela ez ziren sobera luzatzen eta abereek ezkurak eta hostoak jan zitzaketen adarretatik zuzenean.
Pagoa	Zura, altzarien eta tauladuren egiteko.
Hagina	Zuhaitz honen azalean eta hostoetan dago <i>taxo/</i> izeneko substantzia, bularretako eta obarioetako minbiziaren artatzeko.
Basagerezitzea	Zur gogorra, musika tresnen egiteko.
Zumarra	Itsasontzien egiteko.
Zurzuria	Supiztekoen eta paperaren egiteko.
Itsas-pinua	Altzariak, etxeetako tauladurak, zurtateak, paletak, papera, kartoia, ezko-argiak...
Sasiarkazia	Zur gogorra, hesietako edo zerrailuetako hesolen egiteko.
Sahatsa	Sahatsaren azalarekin azido salizilikoa biltzen da aspirinaren egiteko. Zume-zuriaren (sahatsa mota) adaxkak, saskigintzan.
Ezkia	Loreak, tisanaren egiteko. Azala, sokaren egiteko.

Noiz dira baliagarri zuhaitz hauek ?

Zuhaitza	Noiz baliatzen
Haritz kanduduna	180 eta 250 urte artean
Haritz amerikarra	90 urte
Pagoa	80 eta 120 urte artean
Haritz amerikarra	90 urte
Pagoa	80 eta 120 urte artean
Lizarra	90 urte
Zurzurria	30 urte
Izeia	120 urte

